



PROBA FISIKOAK - JARRAIBIDE OROKORRAK.

SASOIA. Proba hauek egiteko, parte-hartzaileek **kirol jantzi egokiekin** agertu beharko dute, eta **nortasun-agiriarekin**. Probetan parte hartzeko ezinbestekoa izango da **sasioan egotea**, proba guztiak egin ahal izateko, hau da, parte hartzearekin okerragora egin lezakeen gaixotasun, akats fisiko edo zauririk ez edukitzea. Betebehar horiek betetzen ez dituen nornahik uko egin beharko dio probak egiteari, eta, eginez gero, **berea eta ez beste inorena izango da erantzukizuna**. Era berean, parte hartzeak esan nahiko du ezagutzen direla, baloratu direla eta onartzen direla probak egiteak berekin dakartzan arriskuak, zauriak, erorketak eta istripuak barne, eta erantzukizun orotatik salbuesten direla antolatzaileak.

GEHIENENKO PUNTUAZIOA: **3 puntu**. Izangaiek proban dagokion puntuazioa lortzeko ezarritako exekuzio-irizpidea lortu beharko dute, jarraian adierazten den bezala:

- Course-Navette: gehienez 3 puntu.

DEIALDIA: Suhiltzaile Parkeko kiroldegian (Aguirrelanda kalea 8) deituko zaie lehiakideei, probak egiteko. Era honetako deialdietarako legez ezarrita dagoen hurrenkera aintzat harturik egingo da deialdia (B letratik hasita; ikus 2020ko 201. BOE).

PUBLIKOTASUNA.. Proba hau **ez da publikoa izango**, osasun-agintaritzak ezarritako COVID19 neurriei jarraikiz. Ezingo da grabazio partikularrik egin ikus-entzunezko bidez, baldin eta segurtasunean, norberaren intimitaterako eskubidean eta parte hartzen dutenen irudian bertan eragina izan badezake.

KONTROLAK. **Dopingaren kontrako kontrolak** egin ahal izango ditu epaimahaiak, baita **droga kontsumoa antzemateko testak** ere, osasunerako arriskutsu diren dopingaren eta narkotikoen erabileraren alorrean indarrean dagoen legedia betetzen dela bermatzeko, eta horietakoren batean positibo emanez gero, ariketa gainditu gabekotzat joko da. Kontrol horiek ausazkoak nahiz orokorrak izan ahalko dira, hala eskatzen duten egoerak antzematen badira.

HUTSEGITEAK INSTALAZIOETAN. Probetakoren bat egitea galarazten duen hutsegiterik gertatuz gero, beste egun batean egiteko deialdia egingo da.

COVID19 NEURRIAK.

Instalaziora kiroldegiko sarbide naturaletik sartuko da, hau da, aldageletatik.

Parte hartzaileei 30 minutuko ordu tarteetan deituko zaie. Jende pilaketa saihesteko, dei egin baino ordu erdi lehenago baino ezin izango dira sartu itxarongunera.

Nahitaez sartu beharko da kiroldegira, maskara behar bezala jarrita, eta eskuak higienizatu beharko dira itxarongunearan sarreran.


Pertsonen arteko distantzia 2,00 metrokoa izango da, gutxienez, une oro.

Itxaroteko gunean, maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da.

Proba fisikoak maskararik gabe egin ahal izango dira.

Proba egin bitartean, gutxieneko distantzia 2,5 metrokoa izango da; beraz, markatutako kaleak erabiliko dira.

Proba amaitu ondoren, kiroldegia utzi beharko da adierazitako ibilbidetik.



OINARRIEN ARABERA:

Ahalik eta denbora luzeenean, joan-etorriko ibilbide batean, 20 metroko distantzia egitean datza, minuturo pixkanaka handitzen doan abiaduran. Ibilbide bakoitzeko abiadura tarte erregularretan soinu bat igortzen duen soinu-zinta baten bidez erregulatu da. Joan-etorriko ibilbideak elkarren segidan egingo dira, oposiziozkoak zintak adierazten duen unean linea gainditu edo zapaldu ezin duen arte. Hautagaiarentzako jarraibideak: irteera-lerroaren atzetik kokatu behar dira, eta haien artean metro bateko tarte utzi. Behin audioa martxan jarrita, irteera-seinalea entzutean, aurreko lerroa zapaldu behar duzue, 20 metrora, hurrengo seinaleak jotzen duen unean bertan edo lehenago. Ezinbestekoa izango da soinu-seinaleak markatutako erritmoari jarraitzea, eta ezin izango da hurrengo ibilbidea egitera atera seinale hori entzun arte. Gutxienez oin batek zapaldu beharko du linea ibilbide bakoitzean. Balorazioa: saiakera bakarra egingo da. Iragarritako azken minutuko zenbakia (palier) erregistratuko da, parte-hartzaileak soinu-seinalearen erritmoa galdu aurretik. Arrazoi teknikoak edo antolamenduzkoak direla-eta ariketa eteten bada, gehienez ere 24 ordu atzeratu ahal izango da errepikatzea. Udalaren webgunean probaren audioa deskargatu ahal izango da. Puntuazioak: 3 puntu (11 aldi gizonentzat – 9 erdi emakumeentzat)

		Aldiak											
		5,5	6	6,5	7	7,5	8	8,5	9	9,5	10	10,5	11
Puntuazioa	Emakumeak	0,33	0,67	1,00	1,33	1,67	2,00	2,33	2,67	3,00			
	Gizonak	0,25	0,50	0,75	1,00	1,25	1,50	1,75	2,00	2,25	2,50	2,75	3,00

BERARIAZKO JARRAIBIDEAK

- Hautagaia itxarote-eremura igaroko da.
- Proba honen eremura itxarote-gunetik sartuko da. Horretarako, NANA aurkeztu beharko du, eta sarbidea eman arte itxarongo du.
- Azterketa-eremu horretan gehienez 10 izangai egon daitezke.

PROBAREN NONDIK NORAKOAK.

- Izangaia, aurreko proba egin ondoren, itxaroteko gunean geratuko da.
- Handik Course Navette-ra sartuko da. Horretarako, NANA aurkeztu beharko du.
- Txanda dagokionean, NANA emango dio probaren balorazioa egiten ari den pertsonari. Zirkuitu bat eta kale bat esleituko zaizkio.
- Irteera taldearentzat batera emango da.
- Soinu-seinaleen arteko ibilbidea 20 metrokoa da. Joan-etorriko ibilbideak elkarren segidan egingo dira, oposiziozkoak audio-gailuak adierazten duen unean linea zapaldu ezin duen arte.
- Abisuak. Lehen abisuak ez du penalizaziorik eragiten, eta ez da abisurik egongo 5 eta 1/2 aringarrira arte. 2. abisuak esan nahi du izangaiak proba amaitu duela.
- Abisuak ikusizko elementu batekin seinaleztatuko dira dagokion katean (kono). Abisu horiek bi muturretan ikusi ahal izango dira.
- Proba amaitzen da soinu-seinaleak adierazten duenean bete dela emakumeentzako 9 mitad aldia eta gizonentzako 11. Aldia.
- Proba amaitu, emaitza jakinarazi eta NANA itzulitakoan, hautagaiek instalazioa utzi beharko dute.

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK